

96/2022 EBAZPENA, martxoaren 10ekoa, Uribeko ESiko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Uribeko ESiko Farmaziako Atal Sanitarioko burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera onartzen diren

AURREKARIAK

Uribeko ESiko zuzendari-gerentearen urriaren 5eko 379/2021 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Uribeko ESiko Farmaziako Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2021eko abenduaren 16ko EHAA 250. zk. eta 2021eko abenduaren 23ko BOE 306 zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2022ko urtarrilaren 14an amaitu zen.

Uribeko ESiko zuzendari gerentearen urtarrilaren 21eko 11/2022 Ebazpenaren bidez, prozesuan onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Horiek horrela, ebazpen honen bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen izendapena argitaratzen dira.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendari erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, Uribeko ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko.

Era berean, Balorazio Batzordearen izendapena argitara emateko aginduko du.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Farmaziako Atal Sanitarioko burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena.– Balorazio Batzordearen osaera onartzea. (II. eranskina)

Hirugarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Urduliz, 2022eko martxoaren 10.



Uribeko ESIko zuzendari-gerentea,
JESUS MANUEL SUAREZ ROMAY

URIBE ESI
URIBE
GERENCIA
C/ Goieta, 32 - 48610 URDULIZ
Tfno.: 946134829

I. ERANSKINA

**URIBEKO ESI-KO FARMAZIAKO ATAL SANITARIOKO BURU LANPOSTUA
ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA**

Onartuen behin betiko zerrenda:

- ANA MARÍA DE JUAN ARROYO

Baztertuak:

- BAT ERE EZ

Baztertzeko arrazoa:

- 1- Ez da langile finkoa eskatutako kategorian.
- 2- Ez dago jarduneko zerbitzuan eskainitako lanpostuaren lanbide-talde bereko kategorian.
- 3- Ez du titulazioari buruzko eskakizuna betetzen.
- 4- Ez du lan-esperientziari buruzko eskakizuna betetzen.
- 5- Eskabidea epez kanpo aurkeztu da.
- 6- Bestelakoak.

II. ERANSKINA

URIBEKO ESI-KO FARMAZIAKO ATAL SANITARIOKO BURU LANPOSTUA BALORAZIO BATZORDEA

Batzordeburua

Titularra: Patricia Rodriguez Landajuela and

Ordezkoa: Isabel Montes Alvaro and.

Lehenengo batzordekidea

Titularra: Monike de Miguel Cascon and.

Ordezkoa: M^a Olatz Ibarra Barrueta and

Bigarren batzordekidea

Titularra: Unax Lertxundi Etxebarria jn.

Ordezkoa: Ana Victoria Aguirrezabal Arredondo and.

Hirugarren batzordekidea:

Titularra: Maider Garmendia Zallo and.

Ordezkoa: Isabel Camargo Ibargarai and.

Laugarren batzordekidea (IVAPek proposatutakoa):

Titularra: M^a Angeles Gil Lemus and.

Ordezkoa: Elena Olloquiegui Biurrarena and.

Idazkaria:

Titularra: Dña. Karmele Iglesia Rosende and.

Ordezkoa: Dña. Maite Yeregui Huarte and.